

Hernani ezagutzeko bost ibilbide herriko historian eta kulturaren barrena

■ Santa Barbara, Muliskue, Akola, Etxolaberri eta Pagoatik gora ■ 10 panel daude seinalizatzeko ■ Udala eta Etnogintza elkartearen arteko elkarlana izan da.



Etxolaberriko Kartolara joateko panela, Ugaldetxon.

ORAIN dela 5.000 urtez honutzako *Hernaniren* historia paseatuz ezagutzeko moduan jarri dute. *Etnogintza* elkarteak eta Hernaniko Udalak egindako proiektuak interes kulturala, historikoa eta etnografikoa duten puntuak bost ibilbideetan bildu eta paneletan seinalizatu-ta utzi ditu.

BOST IBILBIDEAK

Bost ibilaldik garamazkite Hernaniko eta inguru hau Hernani izan aurreko arrastoetara. Herri barrutik hasita, lehen ibilaldia da Kaxkotik Santa Bar-

L. M. DEL BARRIO
(ETNOGINTZA)

“Ibilbide horien helburua jendeak bere bizilekuaren historia eta kultura ezagutzeko modua erraztu eta esku eskura jartzea da.”

barara gainera. Barriok dionez, gotorlekuaz gain, Santa Baratik dauden bistak ikustekoak dira eta Hernanin jende asko

omen dago bizitzan behin bakarrik joango zena. Bigarrena, Osinagatik Muliskueko harrespilara da, gure aurrekoen hilobi zaharrera. Hirugarrena Akolara, bestek beste, 5.000 urteko dolmenak ikustera. Laugarrena, Olazartik gora, Etxolaberrira. Eta, bosgarrena, Pagoatik gora Hernani, Arano eta Hel-duaingo mugaraino.

HISTORIA, ESKURA

Luis Mari del Barrio Etnogintzako kideak Kronikari esan dionez, askotan nahikoa izaten da gauza bat berta edukitzea ez ezagutzeko. Ibilbide horien helburua jendeak bere bizilekuaren historia eta kultura ezagutzeko modua erraztu eta esku eskura jartzea da.

GALDU BELDURRIK EZ

Ibili eta historia ezagutzeak ez du galbiderik. Hasteko ibilbide bakoitzak bi panel ditu: bat bide ondoan jarria (Osinagan, Ugaldetxon, Portalez Kanpon, Epelan eta Pagoan) eta bestea ibilbidea hasten den lekuan bertan. Panelean ibilbide horretan interes haundienekoa zer dagoen jartzen du. Hortik aurrera, 150-200 metroero, bide barruan zoazela adierazten duen seinale bat dago. Bidegurutzeetan ere badaude seinaleak. Eta intereseko lekuan bertan ere bai. Ez dago beraz, iritsi ez edo pasatzeko arriskurik.

GIDA OSOA

Proiektuak atzetik lan asko du. Berez, 1999an Hernaniko ondarearen inbentarioa egin zen aurrena. Handik, intereseko puntuekin gida osatu eta zortzi ibilbideko gida liburua etorri zen, bere xehetasun guztiekin; eta iaz, Hernaniko mapa. Ibilbideak esku hutsik egin beharrean ondo dokumentatuta egin nahi duenak ere hor du aukera. □

Berriak elkartearen batzar orokorra bihar Sandiusterrin

■ Euroaren simulazio-proiektua izango da gai nagusietako bat ■ Sandiusterrin, 20:00etan.

SAN FERMINAK MARTINDEGIN

Leire Zumeta eta Amaia Arzak irabazi dute trikitilari txapelketa

■ Estitxu Goikoetxea eta Ixiar Jauregi hernaniarrek laugarren egin zuten ■ Auzoko festak bukatu dira.



Trikitilariak sariak banatu ondoren. Irabazleek txapela eta kopaz gain, Otsoak kartzelan egindako buztinezko txapel bana jaso zuten.

MARTINDEGIKO trikitilari txapelak Villabona eta Donostiara joan dira aurtan. Bost bikote atera ziren eta epaimahaiak Leire-Amaiak osatutako bikotea apartatu zuen. Bigarren Maitane Aierza eta Aiora Aiarre gelditu ziren. Estitxu Goikoetxea eta Ixiar Jauregi herritarrek, berriz, laugarren egin zuten. Oialumeko terraza jendez bete eta giro polita egin zen.

BUKATU DIRA JAIK

Herenegun bezelaxe, atzo ere egun polita bota zuten Martindegin. Goizean herri kirolak eta bertsolariak izan ziren, Ega-

ña eta Lizaso. Arratsaldean, trikitixa txapelketaren ondoren, toka txapelketa, bertsolariak berriz, txinga proba eta dantzaldia *Etzakit* taldearekin. Denerako jendea osatu zen.

Martindegiko jaietan joko eta proba asko izan da. Hauek izan dira irabazleak: tortilla txapelketan, Maritxu Intxausti; karabanan, Eneko Azpitarte eta Jon Blanco; marrazkian, Endika Barrenetxea; segan eta txingetan, Jon Larrañaga; irrintzian, Ixiar Rekalde; *Platano dantzan* Ixiar Rekalde eta Iñigo Barrenetxea; tokan, Amondarain, eta herriko aurrena Lujanbio *Santiomendikoa*.



Ezkerrez tokan, atzo Oilalumen. Azken egunean ere pultsua lasai eta apunteriazorrotz!

Udako zine saioa ostegun, ostiral eta larunbatean

■ *Traffic*, *102 Dalmatas* eta *Limite Vertical* pelikulak botako dituzte ■ Gaueko 22:30etan dira, Gudarien plazan ■ Udaletzeko kultura sailak antolatzen du.



Jende asko biltzen da normalean uztaileko pelikulak ikustera.

KALEAN zinea jartzen hasi zirenetik 12 urte dira aurtan. Lehen bi edizioak Tilosetan egin ziren eta 1992, 93, 94ean Gudarien plazara eram zituen *Potenkin* taldeak. Tira-birak medio, 1994a ezkerotik udalak antolatzen du udako zine emanaldia.

HIRU PELIKULA

Ostegunean *Traffic* pelikula botako dute, ostiralean *102 Dalmatas* eta larunbatean *Limite Vertical*. Hirurak gaueko 22:30etatik aurrera.

Udako zineko pelikulek jende asko biltzen dute normalean. Etsairik txarrena eguraldia izango da aurtan ere, ona bada jendea erruz, baina, txarra bada inor gutxi inguratzeko arriskua baitago. □

JUBILATU ETXEA

Gimnasia apuntatzeko epea zabalik da, abuztuak 10 arte.

■ Iraila erdi aldera hasteko asmotan dira ■ Prezioa: 4.000 pta.



Jubilatu Etxekoak gimnasia egiten kiroldegian. Altxa hanka hori, altxa!

BAI EUSKARARI AKORDIOA HERRIETAN

Hernanirako martxan jarri nahi den Euskararen Normalkuntzarako Egitasmoaren barruan **2 langile behar dira**.

▶ **LAN BALDINTZAK:** Urte beterako (gutxienez)

▶ **KONTUAN HARTUKO DIREN ERIZPIDEAK:**

- ⇒ Hernanin bizitzea
- ⇒ Antzeko lanetan aritua izatea
- ⇒ Bi hizkuntzetan ongi moldatzea
- ⇒ Euskalgintza ezagutu edo bertan

▶ **IZEN EMATEKO EPEA:**

Uztailaren 18 a baino lehen, Hernaniko Euskara zerbitzura jo. Hautaketak uztailaren 23an, elkarriketa bidez egingo dira.

Hernaniko Jarraipen Batzordea

2000-2001 ikasturtean gimnasia egin nahi duten jubilatuek orain dute garaia izena emateko. Horretarako, Jubilatu Etxeko ofizinara joan astelehen, asteazken edo ostiraletan, 16:00etatik 18:00-etara. Izena emateko epea datorren hilean bukatuko da, abuztuaren 10ean; klaseak, berriz, iraila erditik aurrera hasiko dira.

Cantabriako *Suances* herrira joateko zozketa gaur ez, baizik gaur zortzi da, uztailaren 16an. □

Senitarteko eta herritarrek omenaldia eginda agurtu zuten Joseba Apaolaza

■ Mertxe Etxeberria alkateak Apaolaza bera eta bere lana goraiatu zituen hilerriko ekitaldian.



Joseba Apaolazaren gorputza ikurrin artean udaletxetik ateratzen

JOSEBA Apaolaza Batasunako zinegotzia atzo lurperatu zuten Hernaniko hilerrian. Apaolazaren gorputza udaletxean egon zen larunbat arratsaldetik atzo eguerdia arte. Hamabiak aurretik, udaletxetik atera eta hilerriera eramán zuten, kapilara.

Ondoren hilerriko atarian txalaparta, bertsoak eta Mertxe Etxeberria alkatearen hitzak etorri ziren, *Batasunak* antolatutako omenaldian. Alkateak, malkotan, Joseba Apaolaza bera eta udaletxean Haziendako eta Kirol Patronatoan egindako lana txalotu zituen.

Haziendako gestioan zenbait zorrotza eta, aldi berean, umore puntua zuena zela esan zuen Etxeberria alkateak.

Agurra dantzatu eta *Eusko gudariak* kantatuta ekitaldia bukatu eta lur eman zioten Apaolazaren gorputzari. Omenaldietan 250 lagun inguru bildu ziren

HILETA ELIZKIZUNA

Joseba Apaolazaren arimaren aldeko hileta elizkizuna gaur izango da. Arratsaldeko zazpietan egingo da, Juan Bataiatzailea parrokan. □

PELOTA - HERRI ARTEKOA

Hernani laugarren, azkoitiarren kontra 2-1 galduta

■ Jubenilek irabazi zuten; kadete eta afizionatuek, galdu. Hala ere, ondo jokaturako partiduak izan ziren.

ZERBITZUAK

TELEFONOAK

▶ Taxiak:
943 550093
▶ Udaltzaingoa:
943 333288
▶ DYA:
943 464622
▶ Anbulatorioa:
943 557750
▶ Jokalari anonimoak
943 331103

FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
▶ Gauez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
▶ Astearteak
▶ Egunez: Bulnes Etxeberri - Florida ☎ 943 557738

▶ Gauez: Bulnes Etxeberri - Florida ☎ 943 557738

ASTEAZKENA

▶ Egunez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793

▶ Gauez: Chucla Kardaberaz 48 ☎ 943 551793

LAGUNTZAILE IZAN NAHI DUT

Markatu X batez zure aukera 5.000 pta
 25.000 pta
 pta

HERNANIKO
kronika

Izena _____ Abizenak _____

N.A.N / N.I.F _____ Helbidea _____

P. kodea _____ Herria _____ Herrialdea _____ Tel. _____

Banku edo aurrezki kutxa _____ Titularra _____

Titularren helbidea _____

Entitateak Sukurtsala Kontua

KRONIKAREN kontura diru-sarrera: EUSKADIKO KUTXA 3035 0025 81 025007767.2

KUTXA 2101 0041 01 001096804.8

BONOA UZTEKO: *Kronika, Dobera, Pana, Iruretagoiena, Konde eta Zinko Enean.* Nahi izanez gero telefonoz (943 33 08 99), postaz (Larramendi 11) edo E-mailez (*kronika@topagunea.com*) egin dezakezu.

Bai, ezta?